

EMILE LARRE HIL DA

Emile Larre euskaltzaina hil da. Emile Larre laurogeita bederatzita urte dituela pausatu da Kanbon, Lapurdin. Emile Larre Baigorri sortua zen 1926ko urtarrilaren hiruan, Belarrea baserrian, Urdoze auzo menditarrean, herri-kaskotik urruti, Iparla eta Larla mendi goren magalean. Joan den larunbatean, maiatzaren 30an, hil zen aspaldian ezindua zen Kanboko *Arditeia* egoitzan.

Emile Larre Jean Haritselhar (1923-2013) bezala Baigorrikoa zen eta bi-biak haurretan elkarrekin kateximan ibiliak ziren. Emile Larre hamaika urtera arte bere mendi-auzoko Urdozeko eskolan ibili zen eta handik Uztaritzeko Seminario Ttipira aldatu zen. Emile Larrek gaztetatik seminarioan euskaraganako isuria erakutsi zuen. Uztaritzeko Seminario Tipian zela, Pierre Lafittek seminarioan apezgaien artean eratzten ziren sariketa batean Léon Léonen liburu bat eman zion lehen saritzat: *Jesu-Kristoren Imitazionea*. Emile Larre 1951an apeztu zen 25 urte zituela. Hazparnen bikario bi urtez izan zen, handik Donibane Garazira joan zen, gero Urruñan sei urte pasatu ondoren berriro Hazparnera deitua izan zen. Aiherrako erretore 1969an izendatu zuten eta Aiherran erretore zegoela, Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia Aiherran egin zuen 1975 urtean, san Migel bezperan. Emile Larrek René Lafon irakasle eta euskaltzainaren aulkia ordezkatu zuen Euskaltzaindian.

Emile Larre *Gazte* aldizkarian idazten hasi zen *Sokorri* izengoitiarekin. 1969an, Pierre Lafittek eskaturik, *Herria* astekarian sartu eta ehunka artikulua eta lan idatzi zituen astekari horretan. Nik Emile Larre Euskaltzaindiko Herri literatura batzordean ezagutu nuen 1996. urteko abenduan. Harrezkero batzorde berean ia hogeita urtean elkartu gara, Donostian, hilero-hilero, hilaren azken asteartean. Nik ezagutu nuenean, Emile Larre gure batzordera etortzen zen Iparraldeko batzordekide bakarra zen. Aurretik Mixel Itzaina ibilia zen. Urte askotan zehar Emile batzordekide izatea ohorea eta poza izan da guretzat. Gure batzorde-bilerara etortzen zen aldiro bere umore goxo eta ironia zorrotzez lagunarteko giroa aberasten zuen. Emile apala zen eta lagunartea maite zuen.

Emile Larre bertsozale amorratua izan da. Iparraldeko bertsolariak errotik ezagutzen zituen Xalbador, Mattin... Bertsolari gazteago batzuk neurri handi batean berak sustatu eta plazaratu zituen, berak bihurtu zituen bertsolari. Antonio Zavalak Iparraldeko prosalarien zein bertsolarien lanak argitara ematen zituenean Emile Larri eskatzen zion aholkua eta laguntza. Lankidetzara horren lekuko dira, besteak beste direla, bi lan zoragarriren bi hitzaurre: Beñat Karrikaren *Armendaritze haur begiez* eta Xalbadorren *Odolaren Mintzoa* lanen atarikoak.

Emile Larrek idatzizko iturrietan Jean Barbier (1875-1931), Jean Elissalde *Zerbitzari* (1883-1961), Jean Saint-Pierre *Antxuberro* (1884-1951), Léon Léon (1896-1962), Jules Moulher *Oxobi* (1888-1958), Pierre Laffite (1901-1970), Pierre Narbaitz (1910-1984) izan ditu maisu.

Emile Larrek euskara organikoa zuen, hezur-muinetakoa, bere-berea. Ez zuen zenbaitek bezala, euskara erantsia, galtza zaharrei jartzen zaien adabaki berria bezala. Ume-umetatik bereganatua zuen Nafarroa Behereko hizkera goxoa, Iparla eta Larla mendi-mazeletan sortetxean entzun eta hezurmamitutakoa. Ez dago dudarik joaten zen lekura joaten zela herriarekin hartu-eman oparua zuela, eta lekuan lekuko euskara entzuten eta bereganatzen belarria erne jartzen zuela. Ipar Euskal Herrian leku batean eta bestean egon zenez gero, edozein hitz edo esapideren gainean galdetuz gero, lekuan lekuko zehaztasunak modu harrigarrian esaten zituen. Urruñan halaxe esaten da; Uztaritzen halaxe; Hazparnen beste modu horretara... Iparraldeko herri euskararen biltegi harrigarria zen zinez.

Kazetaritzan egindako lan oparoa alde batera utzirik, hainbat eliz kanta, kantore eta hitzaurrez gain bi libururen egilea ere bada. *Aiherra: Nafarroaren leihoa* liburuak, esaterako, Emile Larreren Aiherra herriaren gaineko prosazko saioak zein kantuak biltzen ditu. 2001en, 75 urte zituela, *Ene artzain-etxolak* autobiografia gotorra argitaratu zuen Auspoa Liburutegian. Kazetaritza mundutik urruti bere haurtzaroa eta bizipenak kontatzen ditu modu harrigarrian.

Uste dut Emile Larreren heriotzean Euskaltzaindiak akademikorik apal eta euskaldunena galdu duela.

Jabier Kalzakorta